

# GRADU AMAIERAKO LANEN ETA MASTER AMAIERAKO LANEN PROPOSAMENA 2021/22 IKASTURTE AKADEMIKOA CAMPUS BIZIA LAB PROGRAMA

## Gradu Amaierako Lana / Master Amaierako Lana

### Izenburua

Hiri-drainatze Sistema Jasangarrien Diseinu hidrologiko-hidraulikorako ekaitzaren azterketa kantauriar isurialdean.

### Deskribapen laburra (gehienez 300 hitz)

Hiri-drainatze Sistema Jasangarriak edo SUDS (Sustainable Urban Drainage Systems edo Sistemas Urbanos de Drenaje Sostenible) euri ura kudeatzeko teknika bereziak dira. Euri-urak sistema horietara iristean, eremu naturalean geratzen denaren antzera eta eremu urbanizatuetan ez bezala, ura jaso eta gorde egiten dute infiltratzeko eta lurruntzeko denbora emanaz edo, bestela, isuria atzeratuz.

Sistema horiek diseinatzeko ekaitz jakinak erabiltzen dira baina, sistema berriak direnez, ez dago ekaitz horien izaera argi eta garbi definitua, obra zibilean erabiltzen diren bestelako drainatze sareak diseinatzean ez bezala.

Proiektuaren helburua Hiri-drainatze Sistema Jasangarri horiek diseinatzeko erabil daitezkeen euriak karakterizatzea da. Horretarako, honako fase edo atal hauek izango ditu lanak:

- (a) beste herrialde batzuetan erabiltzen diren euriak identifikatu eta karakterizatzea,
- (b) antzekoak diren beste azterketa batzuk lorturiko emaitzak aztertzea,
- (c) kantauriar isurialdeko plubiometroak erabiliz diseinu-euriak karakterizatzea.

Azken atalerako, plubiometroetako datuak jaso eta R programaren bidez tratatuko dira datuak, ekaitzak, euriak, bolumenak eta abar identifikatzeko.

Proiektua, Donostiako Campusean eta Leioak Campusean egingo diren beste proiektuetan erabiltzea izango du helburua, Campus Bizia Lab proiektuaren barruan.

## **Ikaslea aukeratzeko hautaketa-irizpideak**

*Hautagaiaren GrAL-arekiko interesa/konpromisoa eta espediente akademikoa baloratuko dira.*

## **Campus**

*Bizkaia*

## **Ikastegia (Fakultatea/ Eskola)**

*Bilboko Ingeniaritza Eskola*

## **Titulazioa**

*Ingeniaritza Zibileko Gradua*

## **Elaboraziorako eta defentsarako hizkuntza**

*Gaztelania / Euskara*

## **Irakasle arduraduna**

**Eneko Madrazo Uribeetxebarria**

## **Posta elektronikoa**

*eneko.madrado@ehu.eus*

## **Campus Bizia Lab (CBL) proiektua**

**EHUsuds**

## **CBL proiektuaren webgunea**

*<https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/ehusuds>*